

**ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA EGITEAGATIK
UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEAK
2019AN ARGITARATUTAKO DIRULAGUNTZA DEIALDIAREN ESLEIPENA**

Iragarkia

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko Zuzendaritza Batzordeak 2019ko urriaren 24an egindako bilkuran, hurrengo dirulaguntzak emateko deialdia onartu zuen:

Mankomunitateko kide diren udalei, 2019. urtean Eragin Linguistikoaren Ebaluaziorako tresna aplikatzeko dirulaguntzak.

AURREKARIAK

1. Dirulaguntzaren helburua

2019ko azaroaren 22an, BAOan argitaratutako oinarrien helburuak hauek ziren:

- a) Udalek onartzen dituzten udalerriko plan orokorretan ELE tresna aplikatzea, eta dagozkion emaitzen arabera neurriak hartzea.
- b) Udalek onartzen dituzten plan partziealei ELE tresna aplikatzea, eta dagozkion emaitzen arabera neurriak hartzea.
- c) Udalerriko egoera soziolinguistikoa alda dezaketen proiektuetan ELE tresna aplikatzea eta dagozkion emaitzen arabera neurriak hartzea, proiektuaren baimena udalaren esku dagoen kasuetan.

2. Dirulaguntzen onuradunak

Dirulaguntza hauek jaso ahalko dituzte, Mankomunitateko kide izan eta mankomunitateari ordaindu beharreko kuota egunean duten udalek.

JASO DIREN ESKAERAK

Dirulaguntza hauen iragarkia BAOan argitaratu zenetik, honako udal hauek egin dute laguntza jasotzeko eskaria, oinarriek zehazten zuten epean eta lekuan:

- Aizarnazabalgo Udala
- Bakioko Udala

- Zestoako Udala

DIRULAGUNTZA EMATEKO IRIZPIDEAK

Hauexek dira, diru-laguntzak emateko oinarriek zehazten zituzten irizpideak:

1. Eragin linguistikoaren ebaluazioa egiteak udalari ekarri dion gastuaren proportzionala izango da, eskatzaileen artean.
2. Dirulaguntzen emakida gehienez dagokion partidaren aurrekontuko diru-izendapenaren mugaraino egingo da.

AURREKONTU PARTIDA

Dirulaguntzak ondorengo atalean oinarrituta eskatu ahal izango dira. Atalak gehienezko kopuru hau izango du: 8.000 euro.

ELE azterketak egiteko dirulaguntzak partida: 8.000 euro

Partida: 409.335.00

EBAZPEN PROPOSAMENERAKO OINARRIAK

Eskaera Mankomunitateko kide diren hiru udalek bakarrik eskatu duela kontuan hartuta, dirulaguntza eskaera egiteko bete behar ziren baldintzak betetzen dituztela kontuan izanda, eta zuzendaritzak udalerriko gehienezko dirulaguntza esleipena 3.600 eurokoa izango dela erabakita.

Proposamena da: Hiru mila eta seiehun euro (3.600€) baino gehiago eskatu duten bi udalei kopuru hori esleituko zaie, eta besteari eskatu duen kopuru osoa.

Aizarnazabalgo Udala: 3.600 euro

Bakioko Udala: 763,20 euro

Zestoako Udala: 3.600 euro

Guztira, beraz, dirulaguntzetan 7.963,2 euro banatuko ditu UEMAK.

ERREKURTSOAK

Esleipenaren aurka berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio esleipen hau UEMArean webgunean argitaratzen den egunetik (2020ko urtarrilaren 10etik) kontaktzen hasita 15 eguneko epean.

Azpeitian, 2019ko abenduaren 31n

Iraitz Lazkano Garitaonandia

UEMAko lehendakaria



Miren Segurola Larrañaga

UEMAko koordinatzailea

